XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

6333

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 1ekoa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Metro Bilbao SA enpresak ematen dituen zerbitzuen 2012. urterako tarifak onartzeko dena.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2011ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen, zeinen xedapen-zatia argitaratzen baita, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan sarrera eman zaio Metro Bilbao SA enpresak aurkeztutako eskariari. Eskari hori enpresa horren zerbitzuen 2012. urterako ekitaldirako tarifak berrikustekoa zen.

Metro Bilbao SA enpresak ematen dituen zerbitzuei dagozkien tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia-erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege-Dekretuaren (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia) 16.4 artikuluari jarraiki.

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori, otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuan (otsailaren 16ko EHAA, 31. zenbakia) eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduan (uztailaren 6ko EHAA, 128. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak ekonomia-oreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, bizitza-kostuarekiko prezioak osatzeko tresnak zaintzekoak ere badira.

2012. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertuta, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua ematearen kostu-egituraren barruko kontzeptuetara egokitzen direla uste da.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Metro Bilbao SA enpresak ematen dituen zerbitzuen 2012. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne direla. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

Joanaldia gune 1	1,45
Joanaldia 2 gune	1,60
Joanaldia 3 gune	1,70
Creditrans gune 1	0,77
Creditrans 2 gune	0,92
Creditrans 3 gune	1,03
Super 50 gune 1	26,60
Super 50 2 gune	31,50
Super 50 3 gune	35,20
Hilekoa gune 1	32,30
Hilekoa 2 gune	38,60
Hilekoa 3 gune	45,00
Gaztea gune 1	204,80
Gaztea 2 gune	239,40
Gaztea 3 gune	277,20
Gizatrans	0,29
Gizatrans 20	0,23
Gizatrans 50	0,15
Egunekoa	4,50
Joan-etorria gune 1	2,90
Joan-etorria 2 gune	3,20
Joan-etorria 3 gune	3,40

Bigarrena.– Erabaki honek 2012ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, hilabete biko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JOSÉ LUIS HUALDE MAYO.